



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

t. +34 94 657 40 00
info@azti.es | www.azti.es

Lizitazio iragarkia

Espediente zk. 025/061267

Derio, 2025ko martxoaren 5a

1. XEDEA

AZTI Fundazioak iragartzen du lehiaketa publiko bidezko lizitazio prozedura bat ireki duela AZTIk Bilbao Exhibition Centerren (Barakaldo-Bizkaia) 2025eko maiatzaren 13tik 15era egingo den **FOOD 4 FUTURE erakustazokan erabiliko duen standean erakusgai jarriko diren edukien kontzeptualizazio-zerbitzuak azpikontratatzeko, eta horiei lotutako elementuak (eraikuntza, muntaketa, desmuntaketa, dekorazioa, ekipamendua, martxan jartzea, mantentzea eta aseguruak) diseinatu, ekoitzi eta/edo alokatzeko.**

2. ZERBITZUAREN IRAUPENA

Zerbitzua kontratua sinatzen den egunean hasiko da eta stand-a osorik desmuntatu ondoren amaituko da.

3. ESKAINTZA EKONOMIKOA

Lizitazio honetarako onartuko den gehieneko eskaintza ekonomikoa **berrogeita hamar mila euro (50.000,00 €)** da, zergarik gabe.

Faktura jaulki eta hurrengo 60 egunetan ordainduko da, AZTIren proiektuaren arduradunak adierazitako zerbitzuen arabera egindako lanekin ados dagoela adierazten duenean.

Baja ausartegiak: Lizitazio honen testuinguruan, baja ausartegizat hartuko dira merkatuko batez bestekoa baino prezio nabarmen txikiagoa duten eskaintzak, eta zalantzak sortuko dira bideragarritasunari eta ezarritako kalitate-estandarrak betetzeari buruz. Baja ausartegizat joko da lizitazioaren iragarkiaren 3. puntuan adierazitako gehieneko prezioaren % 50eko edo hortik beherako prezioa duen edozein eskaintza.

4. PROPOSAMENAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Jasotako proposamenak irizpide hauen arabera baloratuko dira:

Eskaintza ekonomikoa	%50
Proposamen teknikoa	%40

Balorazioa egiteko, diseinuaren eta sormenaren proposamena hartuko da kontuan, eta diseinuaren originaltasuna eta planteamendu estetikoa baloratuko dira, erakusmahaia bisitariarentzat erakargarria izan dadin eta AZTI markari azkar lotzeko eta espazioan erakutsi beharreko elementuak (produktuak/zerbitzuak) bikain ikusteko aukera eman dezan.

Honako hauek hartuko dira kontuan balorazioa egiterakoan:

- ✓ Erakustokiaren altueraren eta ikuspenaren planteamendua pabiloiaren angelu guztietatik.
- ✓ Eremuak behar bezala banatzea, bisitarien fluxua erraztuz.
- ✓ Espazioa ahalik eta gehien aprobetxatzea banaketa orokorrean.
- ✓ Materialen kalitatea: zoladuran, euskarri grafikoetan, argiztapen-sistemetan, altzarietan (mahaia, aulkiak, produktuak erakusteko gunea...).
- ✓ Stand irekia izan dadila, sartzera bultza dezala.
- ✓ Proposamenaren antzeko lanen portfolioa aurkeztea.

Berdintasun-plana	%5
Gizarte Erantzukizun Korporatiboko Politikak	%5

5. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Lizitatuzaileek bi helbide elektronikoetara aurkeztu beharko dituzte beren proposamenak: licitaciones@azti.es eta ivelez@azti.es helbideetara edo AZTIren edozein zentrotara, betiere lizitazioaren espediente-zenbakia adieraziz, iragarki hau AZTI Fundazioaren webgunean argitaratzen denetik **2025eko martxoaren 25eko 12:00ak arte**.

Lizitatuzaileek helbide honetara jo ahal izango dute **informazio tekniko** gehigarria jasotzeko:

AZTI

Nori. Meritxel Gonzalez

Mail: meritxel.gonzalez@azti.es y licitaciones@azti.es

Gaia: Esp. zk. 025/061267 - FOOD 4 FUTURE Stand

6. ESLEIPENA

Eskaintzak aurkezteko adierazitako egunean jaso ondoren, 15 laneguneko epean, AZTI Fundazioaren webgunean argitaratuko da lizitazioaren emaitza.

7. KONTRATAZIORAKO BALDINTZAK

- Hautatutako erakundea, AZTIrekiko zerbitzuak dirauen bitartean, lan, Gizarte Segurantza eta Laneko Segurtasun eta Osasunaren arloan indarrean dagoen araudia bete beharko du, eta, dagokionean, enpresa jarduerak koordinatu beharko ditu, 171/2004 Errege Dekretuaren arabera, ezarritako prozedura eta espezifikazioei jarraituz (hemen eskuratu daitezke <http://www.azti.es/es/coordinacion-de-actividades-empresariales/>)
- Hautatutako erakundeak, beste edozein agiri alde batera utzita, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du kontratua formalizatu aurretik.
- Hautatutako erakundeak kontratua formalizatzeko behar den dokumentazioa aurkeztu beharko du gehienez 20 eguneko epean, esleipena egiten denetik zenbatzen hasita. Dokumentaziorako, hautatutako erakundeak, www.azti.es webgunean argitaratutako Kontratazioari buruzko Barne-Araudia bete beharko du.
- Baldintza teknikoez eta administratiboez gain, AZTIk positibo baloratuko ditu Kalitate, Segurtasun eta Osasun, Ingurumen, Mugikortasun Jasangarri eta Gizarte Erantzukizun Korporatiboko politikiei eusten dietela frogatzen duten hornitzaileei.
Hornitzaileak politika horiek egiaztatzeko aukera ematen duten dokumentuak edo erregistroak sartuko ditu bere proposamenean (kalitate ziurtagiriak, ingurumenekoak, gizarte erantzukizuneko gaietako jarduerari buruzko dokumentazioa, etab.).
- **Karbono-aztarnaren neurketa:** aukeratutako hornitzaileek behar adina datu eman beharko dituzte AZTIk lizitazio honen esparruan egindako jarduera bakoitzak sortutako karbono-aztarna neurtzeko erabiltzen dituen materialei, pisuei, barne-logistikari eta abarri buruz.

8. DATUAK BABESTEKO ERREGELAMENDU OROKORRA



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

Arduraduna: Izena: AZTI FUNDAZIOA - IFK: G48939508 Posta helbidea: TXATXARRAMENDI UGARTEA Z.G. SUKARRIETA (BIZKAIA) Telefonoa: 946574000 Helbide elektronikoa: lopd@azti.es.

"AZTI FUNDAZIOAn ematen diguzun informazioa tratatzen dugu, zure eskaera egiteko, zerbitzuak fakturatzeko eta merkataritza harremanak mantentzeko. Zure datu pertsonalen tratamenduaren oinarri juridikoa merkataritza harremanak izateko eta zerbitzuak emateko dugun interes legitimoa da, eta behar-beharrezkoak dira helburu horretarako. Emandako datuak gorde egingo dira merkataritza harremanak dirauen bitartean edo legezko betebeharrak betetzeko behar diren urteetan, eta, harremana amaitu ondoren, erantzukizunak sor daitezkeen neurrian. Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, legezko betebeharren bat dagoenean izan ezik, ezta zerbitzu tekniko eta informatikoen eta auditoretzaren hornitzaileei ere. Halaber, ez du inola ere zure datu pertsonalen nazioarteko transferentziarik egingo. Eskubidea duzu AZTI FUNDAZIOAn zure datu pertsonalak tratatzen ari garen jakiteko; ondorioz, eskubidea duzu zure datu pertsonaletan sartzeko, datu okerrak zuzentzeko edo ezabatzeke eskatzeko, datuak jada beharrezkoak ez direnean, baita ere aurkartzeko, mugatzeko eta lekualdatzeko eskubidea ere, datuen babesari buruz aplikatu beharreko araudian xedatutako terminoetan, goian adierazitako helbidera idatziz jakinaraziz. Halaber, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute kontrolerako agintaritza eskumendunaren aurrean.

9. BALDINTZA TEKNIKOAK

1. Helburuak:

AZTIk Food 4 Future Expofoodtech 2025 erakusketa-gunean duen presentziari lotutako zerbitzuak:

1. FASEA. Espazioan erakutsi beharreko edukia kontzeptualizatzea:

Espazioan erakutsi beharreko formatuak, elementu fisikoak eta/edo ikus-entzunezko elementuak definitzea, AZTIk elikaduraren balio-kateari eskaintzen dizkion aukerak modu ezin hobean eta eraginkorrean komunikatzeko (itsasotik platererako kontzeptua). Standean kate horren bistaratzea aztertuko da, katebegi bakoitzaren zerbitzu eta kasu arrakastatsuekin, bai eta lerro nagusien adibide diren elementu fisikoekin ere. Era berean, produktuak dastatzeko eta bilerak egiteko gune bat izango du.

AZTIko lantaldea hautatutako hornitzailearekin bilduko da F4Fko entzuleei helarazi nahi zaizkien lineei buruzko informazioa partekatzeko, eta, elkarrekin, elementurik eta formaturik onenak zehaztuko dira, AZTIk ekitaldi honetarako dituen merkataritza- eta komunikazio-helburuak modu eraginkorrean betetzeko.

2. FASEA. Espazioaren definizioa, diseinua eta ekoizpena:

1. faseko emaitzak kontuan hartuta, AZTIren standa diseinatu eta eraikiko da, AZTIk emandako edukiak eta erakutsi beharreko materialak kontuan hartuta.

Erakusketa-espazioak, oro har (edukitzailea eta edukia), AZTI elikagaien industriaren inguruan definitzen duten gakoak helarazi beharko dizkie ikus-entzuleei: berrikuntza, etorkizuna eta iraunkortasuna, AZTIren marka-irudiarekin lerrokatutako irudia proiektatuz eta ondo banatutako espazio funtzionala eskainiz, AZTIren gaitasunak erakusteko, profesionalen eta bisitarien arteko topaketa eta elkarreragina alde batera utzi gabe.

Fase honetan sartzen da, halaber, 1. fasean zehaztutako formatuetan azaldu beharreko elementuen garapena (bideoen ekoizpena barne, beharrezkoa izanez gero).

AZTIren proposamena eta estilo-eskuliburua egiteko eduki espezifikokoak idatziz eskatu ondoren emango dira, meritxel.gonzalez@azti.es eta licitaciones@azti.es helbide elektronikoetara idatzita.

2. Kokapena:

AZTIren standeko partzela Bilbao Exhibition Centerreko Hall 1ean egongo da, eta azalera 80m²-koa da.

3. Hizkuntza:

Testua duten material guztiak 2 edo 3 hizkuntzatan egongo dira: euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. AZTIk bere gain hartzen ditu erabili beharreko testuen itzulpenak.

4. Muntatzeko arauak:

Ikusi erakusketarientzako BEC!-eko araudi orokorra esteka honetan https://bilbaoexhibitioncentre.com/wp-content/data/general/Normativa_general_de_participacion_BEC.pdf

Enpresa esleipendunak kudeatuko du BEC!-ekiko harremana, eta espazioa muntatu, zerbitzatu, argindarrez hornitu eta egunero garbitzeko akordioak eta baimenak formalizatzeaz arduratuko da. Alderdi horiei lotutako gastuak aurkeztutako proposamen ekonomikoan sartuko dira.

5. Enpresa esleipendunaren konturako zerbitzuak:

Atal honetan deskribatutako alderdi guztiak enpresa esleipendunaren kontura izango dira, kontrakoa zehazten ez bada, eta, beraz, haren eskaintza ekonomikoan sartu beharko dira:

- **Elektrizitatea:** Arlo honetan indarrean dagoen araudia beteko du.

- Esleipendunaren kontura izango dira standeko edozein elementu kargatzeko eta deskargatzeko beharrezkoak diren garabia eta bestelako baliabide osagarriak, bai eta ordua erreserbatzea eta hura alokatzeko egin beharreko izapideak ere.
- **Standeko partzela erabat garbi eta jasota entregatu beharko da**, eta esleipendunak garraiatuko ditu zaborrak eta obra-hondakinak antolakuntzak adierazitako lekuetara.
- **Mantentze-lanak.** Enpresa esleipendunak erakusmahaia mantentzeko esperientzia duen harremanetarako pertsona bat jarriko du ekitaldia egiten den egunetan. Pertsona hori izango da AZTIren solaskidea ekitaldia egiten den bitartean, standean sor daitekeen edozein arazo edo behar tekniko konpontzeko, bai konponketari dagokionez, bai emandako elementuen funtzionamenduari dagokionez.
- **Muntatzeko eta desmuntatzeko langileen garraioa eta gastuak.** Enpresa esleipendunak azokaraino eraman beharko ditu erakusmahaia osatzen duten eraikuntza-osagai eta elementu guztiak, eta bere kontura izango dira joan-etorrien, ostatuaren, mantenuaren eta abarren kostuak, eta, oro har, muntaia-desmuntaketa egiteko lekualdatu behar diren enpresa esleipenduneko langileen dieta guztiak.
- **Aseguruak.** Esleipendunak bere kargura sinatu beharko ditu beharrezkoak diren aseguru-polizak. Poliza horiek pertsoneri, gauzei edo erantzukizun zibilari egindako kalteen ondoriozko edozein arrisku estaliko dute (fabrikazioa, garraioa, muntaketa, mantentzea eta desmuntatzea).

6. Iraunkortasuna eta Irisgarritasuna:

Diseinuan, garraioan, eraikuntzan, muntaian eta desmuntatzean, funtsezko alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

- a) **Irisgarritasuna.** Stand-ak oztopo arkitektoniko guztiak ezabatu beharko ditu, bertara joaten den pertsona orori sarbidea ziurtatzeko.
- b) **Material iraunkorrak.** Ingurumena errespetatzen duten material jasagarriak erabiltzea baloratuko da, eta material horiek ekodiseinuko edo ingurumen-kudeaketako ziurtagiriak eduki ahal izango dituzte, baita material birziklatu eta birziklagarriak erabiltzea ere.
- a) **Hondakinak.** Lehiaketaren xedearekin lotutako jardueren ondorioz sortzen diren hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak behar bezala kudeatzea (diseinua, garraioa, eraikuntza, muntaketa eta desmuntaketa).
- b) **Produktu toxikoak eta arriskutsuak:** Ahal den neurrian, saihestu produktu toxiko eta arriskutsuak erabiltzea eta horien ordean ingurumen-inpaktu txikiagoa duten beste batzuk jartzea.
- c) **Energia:** Ahal den neurrian, energetikoki eraginkorrak diren ekipo informatikoak, ikus-entzunezko baliabideak eta argiztapen-sistemak erabiltzea.

- d) **Emisioak:** Ahal den neurrian, energia-kontsumo txikia duten ibilgailuak erabiltzea, lotutako CO2 emisioak minimizatzeko.
- e) **Material birziklatu eta birziklagarriak erabiltzea** eta iraunkortasuna eta irisgarritasuna bezalako balioak diseinatzean transmititzea baloratuko dira.

7. Proiektuaren koordinazioa eta zuzendaritza:

Enpresa esleipendunak proiektuaren koordinazio orokorra egiteko esperientzia duen pertsona bat bideratuko du proiektu honetara. Pertsona hori arduratuko da kontratua behar bezala gauzatzeko enpresa esleipendunaren kontura diren baldintza-agiri honetako alderdi guztiak egokitzeaz eta horien jarraipena egiteaz. Pertsona hori izango da AZTIko taldearekin harremanetan jarriko dena.

AZTIri dagokio proiektuaren garapenaren jarraipena modu jarraituan eta zuzenean egitea. Horretarako, erakunde esleipendunak jarraipena erraztuko dio AZTIko taldeari. Jarraipen-bileren egutegia zehaztuko da.

AZTIk proiektua garatzeko behar den informazioa ematen lagunduko dio erakunde esleipendunari, eta kanpoko informazio-iturrietarako sarbidea lortzen lagunduko dio.

Esleitutako proposamenean edozein aldaketa egiteko, AZTIren erabakia beharko da, eta horrek lanen gidalerroak aldatu ahal izango ditu uneoro.

8. Konfidentzialtasuna eta jabetza

Informazio oro isilpekoa izango da, eta ezingo da argitaratu, ez osorik, ez zati batean, edo beste edozein modutan, AZTIk berariaz eta aldez aurretik idatzizko baimena eman gabe.

Erakunde esleipendunak ezingo du inoiz proiektuari buruzko adierazpen publikorik egin, AZTIren berariazko baimenik gabe.

9. Gauzatzeko epea

Kontratua gauzatzeko epea administrazio-klausula zehatzen agirian aurreikusitakoaren arabera ezartzen da.

Aurrekoari kalterik egin gabe, erakustokiak erabat bukatuta, garbi eta funtzionamenduan egon beharko du ekitaldia hasi aurreko eguneko 20:00etan, hau da, 2025eko maiatzaren 12an.

Baldintza teknikoak: *Jasotako proposamenak ebaluatu eta hautaketa-prozesuan kontuan hartu ahal izateko, lizitazioan adierazitako gutxieneko baldintza teknikoak bete beharko dituzte. Baldintza horiek betetzen ez dituzten proposamenak ebaluazio-prozesutik kenduko dira automatikoki.*

10. BESTE BATZUK

- Esleipendunak (erakunde juridikoa, erakunde juridikoen elkartea, pertsona indibidualak, pertsonen elkartea...), baita lizitazioari erantzuteko edo lizitazioaren xedea betetzeko parte hartzen duten beste erakundeek edo pertsonak ere, hautagaitza aurkeztu duten edo ez alde batera utzita, konpromisoa hartzen dute lortutako informazioaren konfidentziasuna gorde eta mantentzeko eta sekretu profesionala gordetzeko, eta, beraz, ezagutzen eta lortzen duten informazioa ez diete parte hartu ez duten langileei edo hirugarrenei erakutsi, jakinarazi edo ezagutaraziko.
- Informazio konfidentzialtzat jotzen da esleipendunak eta/edo AZTI Fundaziotik kanpoko erakunde edo pertsonak, lizitazioari erantzuteko edo kontratua gauzatzeko, modu bisualean, ahoz, zuzenean edo zeharka, lortzen duten edozein informazio, besteak beste, informazio zientifiko, tekniko, finantzario, legal, fiskal eta komertziala, negozio eredu eta estrategiak, “*know-how*”, bezero eta bazkide posibleen izenak, proposatutako edo azterketa fasean dauden edonolako proiektuak eta eragiketak, datuak, algoritmoak, txostenak, planoak, merkatuko proiektzioak, laneko analisiak eta dokumentuak, bildumak, konparazioak, azterketak eta, oro har, eskuratutako informazio guztia, bai kontratua gauzatu aurretik lortutakoa, bai ondorengoa.
- Konfidentziasun betebeharrak eta informazio konfidentziala ez erabiltzeko betebeharrak indarrean jarraituko dute informazio konfidentziala jende guztiak dakien gauza ez den bitartean, eta egoera hori ez da izan behar informazio konfidentziala eskuratu duten esleipendunak eta/edo erakunde edo pertsonak beren betebeharrak bete ez izanaren ondorio.
- Esleipendunari dagokionez, kontratua amaitu aurretik, bitartean edo ondoren eskuratu duen informazio konfidentziala isilpean gordetzeko eta ez erabiltzeko betebeharra ez da iraungiko kontratua betetzen denean. Esleipendunak kontratua gauzatzean, modu independentean edo AZTIrekin batera, lortutako edo sortutako informazio konfidentziala (lortutako emaitzak) edo horren zati bat bakarrik erabili ahal izango du kontratu hau garatzeko, eta ez du beste erabilerarik egingo.

Esleipendunak modu erreserbatuan erabiliko du informazio konfidentziala eta ez du zabalduko ez jakinaraziko, eta esleipendunarekin duten harremanagatik, informazio hori eskura eduki dezaketen edo eduki behar duten bere langileei, bazkideei, azpikontratuei eta beste edozeini informazioa eskuratzeko sarbidea murriztu beharko die, konfidentziasuna betetzeko beharra dutela ohartarazita. Esleipendunaren langileek, bazkideek, azpikontratuek edo hark emanda informazio konfidentzialaren berri izan duten pertsonak betebehar hori betetzen ez badute, esleipenduna izango da erantzulea.



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

Nolanahi ere, erabat debekatuta dago kontratuaren xedearekin zuzenean lotuta ez dauden informazio, datu eta dokumentuetara sartzea, eta nahitaezkoa da ezagutzen direnak isilpean gordetzea.

Esleipendunak ezin izango du Informazio Konfidentziala erabili, ez zuzenean, ez hirugarrenen bidez: a) edozein eragiketa komertzialetan hasi, eskaini, negoziatu, kontratatu edo sartzeko, edo horrekin lor daitekeen edozein onura lortzeko b) produktuak, soluzioak, zerbitzuak eta know-howa garatu eta, hala badagokio, teknikoki hobetzeko c) patenteen bidez, erabilgarritasun modeloen edo jabetza intelektualak eta industrialak babesteko beste edozein sistemaren bidez, produktuak, soluzioak, metodoak eta abar babesteko.,

- Lizitazio honen kontratua gauzatzearen ondorioz esleipendunak edo horrek eskatuta diharduen beste edozein pertsona fisiko edo juridikok –laneko lotura izan edo ez– lortutako emaitzen gaineko eskubide guztiak AZTI Fundazioaren titulartasunpekoak eta bakarrik horren menpekoak izango dira, muga geografikorik edo denborazko mugarik gabe, emaitzatzen hauek hartuta: produktuak (letra tipoaren kodea, algoritmoa, softwarea, hardwarea, plataforma digitala, aplikazioak, etab.), zerbitzua (kontsultoretza, aholkularitza, digitalak, etab.), dokumentazio teknikoa edozein formatutan (txostenak, fluxu diagramak, datuak, etab.), soluzioak (digitalak, software plataforma, programak, aplikazioak, etab.) eta/edo informazioa, horien aterakinak edo erreplikak barne. Emaitzen, sortutako ezagutzaren edo sor daitekeen edozein jabetza intelektual edo industrialen edozein erregistroren gaineko ustiapen eskubideak eta jabetza intelektual eta industrialeko eskubideak (adibidez, patenteak, etab.) eta/edo horien ondoriozko emaitzen, ezagutzaren edo jabetza intelektual edo industrialaren erregistroaren gainekoak AZTI Fundazioarenak izango dira, eta, beraz, edozein aktibo ukigarri eta ukiezinen ustiapena, edozein dela ere horren forma edo izaera, babestuta egon edo ez, baita horien ondoriozko eskubide guztiak ere, AZTI Fundazioarenak izango dira.

Esleipendunak, eta, hala badagokio, bertako langileek, jabetza intelektualaren eskubideei, emaitzei, sortutako ezagutzari edo sor daitekeen jabetza intelektualaren edo industrialaren edozein erregistroari (adibidez, patenteak, etab.) eta/edo aurrekoen ondoriozko jabetza intelektualaren edo industrialaren emaitzei, ezagutzari edo erregistroari dagokienez, jabetza intelektualaren eskubideen lagapena egingo dio AZTIri, eta hark lagapena onartuko du, honela:

- Lagapen eksklusiboa eta lagapenaren prezioa 300 eurokoa izango da, eta esleipendunak eskaintako prezioaren barruan dagoela ulertuko da.
- Lagatzen diren ustiapen-eskubideak erreproduzio-, banaketa-, komunikazio publiko- eta eraldaketa-eskubideak dira, egun dauden eta ezagutzen diren ustiapen-modalitateetako edozeinetan.
- Lagapenaren denbora-eremua: Jabetza Intelektualaren Legearen Testu Bateginean aurreikusitako gehieneko iraupena, hau da, jabari publikora igarotzen den arte.

- Lurralde-eremua: ustiapen-eskubideen lagapena munduko herrialde guztietara hedatzen da.
- Esleipendunak ezin izango du AZTI Fundazioak emaitzen gaineko edozein eskubide eratorri babestearen aurka egin, eta ezin izango du emaitzarik zabaldu edo argitaratu, salbu eta AZTI Fundazioak baimen idatzia ematen badu eta baimen horren baldintzak betez. AZTI Fundazioak edozein erregistro bulegotan emaitzak babestea edo erregistratzea erabakitzen badu, egileen egiletza aitortuko da, bai AZTI Fundaziokoak badira, bai enpresa esleipendunekoak badira, baldin eta erregistratutako garapenean parte hartu badute.
- AZTI Fundazioak eskubidea izango du emaitzak aldatu, transferitu, entregatu, banatu edo hirugarrenei banatzeko, helburu komertzialekin edo ez, edo behar duen edozein jarduera egiteko. Halaber, esleipendunak AZTI Fundazioari emaitza osoak eman beharko dizkio (adibidez, letra tipoaren kodea, etab.), eta AZTIk, horien jabe den aldetik, zuzenean edo hirugarrenen bidez, emaitzetan oinarritutako lan eratorriak sustatu ahal izango ditu, eta hobekuntzak eta hortik eratorritakok AZTIren jabetza eskusiboa izango dira.
- Esleipendunak aitortzen du, kontratua gauzatu aurretik, AZTI Fundazioa hauen jabe dela: produktuaren edo soluzioaren ideia eta kontzeptua/prototipoa, produktuak edo soluzioak izan behar duen funtzionaltasunaren, eraginkortasunaren eta interkonektibitatearen diseinua, datuak (datu motak, jatorria, kudeaketa eta tratamendua, etab.) eta know-howa (AZTI Fundazioaren aurretiazko ezagutza). Horrela, AZTI Fundazioak, aurretiazko ezagutzaren eta emaitzen titularra den aldetik, zuzenean edo zeharka ustiatu ahal izango ditu, berak iritzi bezala.
- Esleipendunak ezin izango ditu, bere kabuz edo hirugarrenen bidez, emaitzak ezein pertsona fisiko edo juridikori transferitu, bitarteko elektronikoen bidez edo beste modu batean, eta ezin izango ditu emaitzak aldatu, itzuli, alderantzizko ingeniari-tza aplikatu, deskonpilatu, saldu, transferitu, azpilientziatu, argitaratu, zabaldu edo kontratua gauzatzean lortutako emaitzetan oinarritutako lan eratorriak sortu. Esleipendunak, beraz, ezin izango du AZTI Fundazioaren negozio estrategia mugatu dezaketen emaitza lehiakorak (produktuak, soluzioak, zerbitzuak, dokumentazio teknikoa) merkatura eramateko ekintzarik egin.
- Emaitzak erabiltzeko beharrezkoa denean (adibidez, letra tipoaren kodea, softwarea, aplikazioak, etab.), esleipendunak kontratu honen aurretiko ezagutzaren lizentzia ez-esklusiboa eta besterenezina emango dio AZTI Fundazioari, lizentziazioan ezarritakoaren gaineko gainkosturik gabe. Kontratua amaitzean entregatutako emaitzak (produktuak, soluzioak...) guztiz funtzionalak, operatiboak eta beste batzuekiko independenteak izan behar dira, eta ez dute inolako mugarik ekarriko emaitzen erabilerari dagokionez, ezta erabiltzeko kostu gehigarriak ere.
- Lizentziazio honetan informazio konfidentzialaren konfidentzialtasunari eta ez erabiltzeari buruz ezarritako baldintza guztiak, baita jabetza intelektualaren eta



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

industrialaren eskubideei eta emaitzen eta sortutako ezagutzaren gaineko ustiapen eskubideei dagokienez ezarritakoak ere, gailendu egingo dira erakunde esleipendunarekin ondoren sinatzen den eta lizitazio honetan ezarritako baldintzekin gatazkan egon daitekeen edozein akordioaren gainera.

- Esleipendunak onartzen du AZTI Fundazioaren izenaren edo deituraren titulartasuna eta merkatuan dituen produktu edo zerbitzuen bereizgarri diren zeinu bereizgarri guztiena AZTI Fundazioarenak direla eta hala izaten jarraituko dutela. Esleipendunak ez du inolako ekintzarik egingo, ezta AZTI Fundazioaren zeinu bereizgarrien baliozkotasunari eragin diezaiokeen neurririk hartuko ere, eta konpromisoa hartzen du ez erregistratzeko edo eskatzeko, ez bere izenean ez hirugarren baten alde, AZTI Fundazioaren izen komertzial, domeinu izen, marka, ikur edo bestelako zeinu bereizgarririk edo horien antzekorik, baldin eta AZTI Fundazioaren jardura, prestazio, produktu edo establezimenduarekin nahasmendurik sor badezakete.